# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena

Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa

Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroak 8**

**Vitoria-Gasteiz, 8 de noviembre de 2016**

**Lehendakaritza**

## EUSKO JAURLARITZAK 30 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU 83 LANKIDETZA-PROIEKTUTARAKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio diruz laguntzeari Euskadiko GKEek garapenerako lankidetzaren arloan aurkeztu dituzten 83 proiektu eta 30 milioi euro erabiliko ditu horretarako. Azaroaren 11n argitaratuko dira EHAAn zein diren onartutako proiektuak eta proiektu bakoitzari esleitu zaion diru-laguntza.

Lankidetza-proiektuetarako laguntzak dira Eusko Jaurlaritzaren jardunbide nagusia lankidetzaren arloan, eta horietara bideratzen da *Elankidetza* Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen funtsen zatirik handiena.

Hainbat arlotako proiektuek jasoko dute diru-laguntza horiek:

1. **Garapenerako lankidetza-proiektuak.**

   Arlo horretakoak dira 83 proiektuetako 55, eta 24.334.210 euro jasoko dituzte onartutako 30 milioietatik. Hona hemen proiektu eta baliabide gehien bildu dituzten herrialdeak: Peruk, Hegoamerikan; Guatemalak, Erdialdeko Amerikan; Indiak, Asian; eta Kongoko Errepublika Demokratikoak, Afrikan.

2. **Ekoizpena garatzeko proiektuak, prestakuntzakoak eta laguntza teknologikoa ematekoak,** herrialde pobretuetan euskal agenteen lankidetza teknikoaren bitartez pobreziaren kontra egiteko.

   Arlo horretan 3 proiektu onartu dira, guztira, 824.191 euro jasoko dituztenak. Kuban, Bolivian eta Latinoamerikako zenbait herrialdetan burutuko dira proiektu horiek.

3. **Garapenerako hezkuntza-proiektuak,** munduan desberdintasunak sorrarazten dituzten arrazoiak ulertarazteko trebakuntza ematen dutenak, eta herritarren inplikazioa eta konpromisoa eskatzen dutenak sortutako gizarte-ereduak eraldatzen.

   Arlo horretan 25 proiektu onartu dira, guztiak Euskadin egitekoak, eta 4.841.598 euro erabiliko dira horretarako.

Proiektu horien helburuko esparruak dira, besteak beste, giza-eskubideak, tokiko ekonomiaren garapena, emakumeen ahalduntzea, gobernantza demokratikoa eta ingurumena zaintzea eta babestea.

Proiektu horiez gain, Eusko Jaurlaritzak *Elankidetza*ren bitartez beste proiektu batzuk ere bideratu ditu orain arte:

- Larrialdiko laguntzarako eta ekinbide humanitariorako 7 proiektu, guztira 1.093.738,8 euro dituztenak. Helburua: Guatemala, Sahara, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Palestinako Lurralde Okupatuak, Nikaragua, Libano, Kenya eta Etiopia.

- Ekinbide humanitariorako 3 esparru-estrategia. Guztira: 2 milioi euro. Helburua: Palestinako Lurralde Okupatuak; Ekuador, Kolonbia eta Venezuela; Haiti.

- 10 hitzarmen Euskadiko, Hegoko edo nazioarteko erakundeekin. Guztira: 1.493.991 euro.

- Nazio Batuen 16 beka. Guztira: 300.000 euro. Helburua: El Salvador, Kuba, Kolonbia, Bolivia, Palestina…

- Euskal lankideentzako 6 laguntza: 150.000 euro. Helburua: El Salvador, Errepublika Dominikarra, Kolonbia, Bolivia, Brasil, India.

**Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun**

**KARGU-KENTZEA**

Gobernu Kontseiluak Pilar Urruticoechea Uriarte andrea Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea erabaki du.

**Enplegu eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK LUZATU EGIN DU ONDARROAN KAMIÑALDEKO MENDI HEGALEKO LUIZIAREN ONDORIOZ KALTETUTAKO PERTSONENTZAKO LAGUNTZA EPEA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Ondarroako Udalari, aurtengo martxoan Kamiñaldeko mendi-hegaleko luiziaren ondorioz kaltetutako pertsonen oinarrizko beharrak kudeatzeko, emandako diru-laguntzan gastuak justifikatzeko epea.

Une hauetan kaltetutako 84 familia ezin izan dira oraindik beren etxebizitzetara itzuli. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren ustez behin behineko bizilekuan eguneroko bizitza egiteko behar oinarrizkoenak estali ahal izateko oinarrizko elementuen premia izaten jarraitzen dute.

Oraindik ezin denez zehaztu noiz itzuli ahal izango diren beren etxebizitzetara, familiek era horretako oinarrizko gastuei egin beharko diete aurre 2017an ere. Horregatik, 2017ko abenduaren 31ra arte luzatu da gastuak justifikatzeko epea.

Gogoratu behar da Gobernu Kontseiluak joan den maiatzaren 3an onartu zuela 240.000 euroko diru-laguntza bideratzea Ondarroako Udalari Kamiñalde mendi-hegaleko luiziaren ondorioz kaltetutako bizilagunek utzi egin behar izan zituztelako beren etxebizitza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura**

## MILIOI 1 EURO, UNIBERTSITATE IKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMATARAKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, onartu du 2016-2017 ikasturtean unibertsitate ikasleen nazioarteko mugikortasun programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako diru-laguntzen deialdia egiten duen agindua. Diru-laguntza deialdi honek 1.071.200 euroko zenbatekoa du.

Erasmus+ programako mugikortasunetarako Europako Batasunak egiten dituen diru-ekarpenen bidez ez da kostuen %100 finantzatzen; beraz, finantzaketa zabaltzea beharrezko gertatzen da deialdi honen bidez. Era berean, unibertsitate-mugikortasunen parte bat Erasmus+ programan sartuta ez dauden lekuetara egiten da; horrela bada, horiek ez dituzte aipatutako erakundeen laguntzak jasotzen, eta, beraz, beste mugikortasun-programa horietan dauden pertsonak finantzatu beharra ere agerian geratzen da.

Nazioarteko mugikortasunak goi-mailako ikasleen formaziorako duen garrantziaz ohartuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aipatutako marko hori zabaltzen du, deialdi honen bidez. Erasmus+ programara eta nazioarteko izaera duten bestelako mugikortasun-programetara atxikitako pertsonen mugikortasunen finantziazioa hobetzea da azken helburua.

2015-2016 ikasturtean zehar 1.667 ikaslek jaso zuten nazioarte mailako mugikortasuneko diru-laguntza Euskadin.

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura**

## 130.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA HERRI URRATS ELKARTEARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 130.000 euroko diru-laguntza ematea Herri Urrats elkarteari, 2016 urtean euskararen eremu geografikoan gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzea helburu duten egitasmoak bultzatzeko.

Euskararen erabilera bermatzeko eta euskara belaunaldiz belaunaldi eta etengabe transmititzeko tresnarik behinenetako bat hezkuntza da. Azken aldiko inkesta soziolinguistikoek argi erakutsi dute euskarazko irakaskuntzak berebiziko eragina duela Euskal Herriko gazte eta helduen hizkuntza gaitasunean eta hizkuntza horren erabileran.

Herri Urrats elkartea, hezkuntza arloan ez ezik, euskara eta euskal kultura sustatu eta bultzatzeko lanetan ere ari da. Irakaskuntza jardun-esparru estrategikoa bada, aisialdiak ere berebiziko garrantzia du euskararen erabilera areagotzeko eta sendotzeko. Horrela, urtean zehar garatzen diren hainbat ekintza antolatzen ditu, ikastolei arnasa eta bizia ematen dizkietenak. Horien artean dago urtero antolatzen den *Herri Urrats* jaialdia ere.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA, ANOETA ESTADIOA ETA ONDOKO MINIESTADIOA BIRMOLDATZEKO LANAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du Euskadiko Administrazio Orokorraren eta Donostiako Udalaren –Anoeta Kiroldegia SA udal sozietatea- arteko lankidetza hitzarmena sinatzea, Anoetako Estadioa eta ondoko Miniestadioa birmoldatzeko lanak finantzatzeko. Era berean, xede horretarako 10 milioi euroko urte anitzeko diru-laguntza ematea ere onartu da.

Lankidetza hitzarmenean jasotzen da, Anoetako Estadioa birmoldatzeko lanetan parte hartzeaz gain, atletismoko miniestadioa birmoldatzea ere, nazioarteko probak betan burutzeko gaitasuna izan dezan, baina baita udalaren lursailetan belar gaineko hockeya jokatzeko instalazioak eraikitzea ere. Gainera, Donostiako Udalak 1.300 metro koadroko espazioa uzteko konpromisoa hartzen du, Donostian egoitza duten euskal kirol federazioek bertan koka daitezen.

Eusko Jaurlaritzak 2016-2019 epean emango dio Donostiako Udalari aipaturiko kopuru hori, ondoren zehazten den eran:

-2016 urtean: 100.000 euro hitzarmena sinatzean, hockey-zelaiaren kokapena definitu eta gero.

-2017an: 3.300.000 euro obren %33 gauzatutakoan, zenbateko hori gastatu dela egiaztatzen duten agiriak bidali eta gero.

-2018an: 3.300.000 euro obren % 66 gauzatutakoan, zenbateko hori gastatu dela egiaztatzen duten agiriak bidali eta gero.

-2019an: 3.300.000 euro, obrak amaitu direla egiaztatutakoan.

## Presidencia

# EL GOBIERNO DESTINA 30 MILLONES DE EUROS A 83 PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

El Consejo de Gobierno ha dado hoy el visto bueno a la concesión de ayudas a un total de 83 proyectos de cooperación para el desarrollo presentados por las ONGD vascas, que suman este año un total de 30 millones de euros. Los proyectos aprobados así como la cuantía de la ayuda destinada a cada uno de ellos se publicarán en el BOPV el 11 de noviembre.

Las ayudas a proyectos de cooperación representan el principal eje de actuación del Gobierno Vasco en esta materia y hacia ellas va dirigida la mayor parte de los fondos que gestiona la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo-Elankidetza.

Los proyectos que van a recibir estas ayudas responden a varias modalidades:

1. **Proyectos de cooperación para el desarrollo.**

   A esta modalidad van dirigidos 55 de los 83 proyectos y se destinarán 24.334.210 euros de los 30 millones aprobados. Los países con mayor concentración de proyectos y recursos por área geográfica son Perú en Sudamérica, Guatemala en Centroamérica, India en Asia y la República Democrática del Congo en África.

2. **Proyectos de desarrollo productivo, de formación y asistencia tecnológica** vinculados a la lucha contra la pobreza en los países empobrecidos a través de la cooperación técnica de agentes vascos.

   En esta modalidad se engloban 3 proyectos por un total de 824.191 euros. Los países en que se desarrollan son Cuba, Bolivia y varios países latinoamericanos.

3. **Proyectos de educación al desarrollo** cuyo fin es formar a la ciudadanía vasca en la comprensión de las causas que generan las desigualdades en el mundo y de incentivar su implicación y compromiso en la transformación social.

   En esta modalidad se han aprobado 25 proyectos que serán desarrollados en Euskadi y a los que irán dirigidos 4.841.598 euros.

Los sectores en los que se enmarcan los proyectos son los derechos humanos, el desarrollo económico local, el empoderamiento de mujeres, la gobernanza democrática y la protección y conservación ambiental.

Además de los proyectos anteriores, el Gobierno Vasco ha canalizado, hasta la fecha, otras ayudas a través de ELankidetza:

- 7 proyectos de ayuda de emergencia y acción humanitaria por un total de 1.093.738,8 de euros. Destino: Guatemala, Sahara, República Democrática del Congo, Territorios Ocupados Palestinos; Nicaragua, Líbano, Kenia y Etiopía.

- 3 Estrategias Marco de Acción Humanitaria. Total: 2 millones de euros. Destino: Territorios Ocupados Palestinos; Ecuador, Colombia y Venezuela; Haití.

- 10 convenios con organizaciones de Euskadi, del Sur o internacionales. Total: 1.493.991 euros.

- 16 becas de Naciones Unidas. Total: 300.000 euros. Destinos: El Salvador, Cuba, Colombia, Bolivia, Palestina…

- 6 ayudas a personas cooperantes vascas. Total: 150.000 euros. Destinos: El Salvador, República Dominicana, Colombia, Bolivia, Brasil, India.

**Desarrollo Económico y Competitividad**

**CESE**

El Consejo de Gobierno ha acordado el cese de la Directora General del Ente Vasco de la Energía Pilar Urruticoechea Uriarte, agradeciéndole los servicios prestados.

## Empleo y Políticas Sociales

### EL GOBIERNO VASCO AMPLÍA EL PLAZO DE LAS AYUDAS CONCEDIDAS A LAS PERSONAS AFECTADAS POR EL DERRUMBE DE LA LADERA DE KAMIÑALDE EN ONDARROA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy ampliar el plazo de justificación de gastos en la subvención concedida al Ayuntamiento de Ondarroa al objeto de cubrir las necesidades básicas de las personas afectadas por el derrumbe de la ladera de Kamiñalde, en marzo de este año.

En la actualidad, 84 de las familias afectadas todavía no han podido regresar a sus casas. Por ello, el Gobierno Vasco entiende que persiste la necesidad de dotarles de los elementos básicos para que puedan cubrir las necesidades más elementales de su vida diaria en su lugar de alojamiento provisional.

No siendo posible concretar la fecha de retorno a sus hogares, las familias tendrán que hacer frente a ese tipo de gastos básicos también durante el próximo año, 2017. Por ello, se ha modificado el plazo de justificación de los gastos hasta el 31 de diciembre de 2017.

Recordamos que el Consejo de Gobierno aprobó el pasado 3 de mayo conceder una subvención de hasta 240.000 euros al Ayuntamiento de Ondarroa motivado por el desalojo de los vecinos y vecinas afectados por el derrumbe de la ladera de Kamiñalde.

**Educación, Política Lingüística y Cultura**

## 1 MILLÓN DE EUROS PARA PROGRAMAS DE MOVILIDAD INTERNACIONAL DE ESTUDIANTES UNIVERSITARIOS

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy y a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, ha aprobado la orden por la que se convocan subvenciones dirigidas a programas de movilidad de carácter internacional de estudiantes de universidades, centros superiores de enseñanzas artísticas y deportivas y otras instituciones ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el curso académico 2016-2017. El importe global de esta convocatoria asciende a 1.071.200 euros.

La contribución financiera de la Comunidad Europea para las movilidades del programa Erasmus+, no alcanza a financiar el 100% del coste de las mismas; por lo tanto, se hace imprescindible ampliar la financiación mediante esta convocatoria. Asimismo, parte de las movilidades universitarias se realizan a destinos no incluidos en el programa Erasmus+, por lo que no obtienen ayudas por parte de los organismos europeos, constatándose la necesidad de financiación a las personas acogidas a estos otros programas de movilidad.

Consciente de la importancia de la movilidad para el alumnado de la enseñanza superior, el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura amplía el citado marco mediante esta convocatoria, que tiene como objetivo el de mejorar la financiación de las movilidades de las personas acogidas bien al programa Erasmus+ bien a otros programas de movilidad universitaria de carácter internacional.

Durante el pasado curso 2015-2016 los beneficiarios de estas ayudas de movilidad internacional ascendieron a 1.667 estudiantes en Euskadi.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### 130.000 EUROS PARA HERRI URRATS ELKARTEA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, la concesión de una subvención de 130.000 euros a la asociación Herri Urrats, para el impulso de actividades que tienen por objetivo el fomento del uso del euskera en el ocio de la población juvenil y en el ámbito geográfico del euskera, durante el año 2016.

La educación es una de las principales herramientas para garantizar el uso del euskera y su continua transmisión intergeneracional. Las sucesivas encuestas sociolingüísticas elaboradas en los últimos años han mostrado que la enseñanza en euskera influye directamente en la competencia lingüística y en el uso del euskera, tanto en la población juvenil como adulta vasca.

La asociación Herri Urrats trabaja, además de en el ámbito educativo, en el fomento y revitalización del euskera y la cultura vasca. Si bien el educativo es un ámbito estratégico, el del ocio no lo es menos para incrementar y consolidar el uso del euskera. Así pues, la asociación organiza a lo largo del año diversos actos de impulso a las *ikastolas*. Entre ellas se encuentra la fiesta anual *Herri Urrats*.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

# CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS DE REMODELACIÓN DEL ESTADIO DE ANOETA Y MINIESTADIO ADYACENTE

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su sesión de hoy la suscripción del convenio de colaboración entre la Administración General de Euskadi y el Ayuntamiento de San Sebastián -sociedad municipal Anoeta Kiroldegia-Ciudad Deportiva Anoeta SA -, para la financiación de las obras de remodelación del Estadio de Anoeta y el Miniestadio adyacente, así como la concesión de una subvención plurianual de 10 millones de euros.

Dicho convenio de colaboración contempla, además de participar en las obras de remodelación del estadio de Anoeta, la reforma del miniestadio de atletismo con capacidad para albergar pruebas internacionales, así como la construcción en terrenos municipales de instalaciones para la práctica de hockey sobre hierba. Además, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se compromete a ceder un espacio de 1.300 m² para ubicar las federaciones deportivas vascas que tienen sede en Donostia.

El pago de esta cantidad a aportar por parte del Gobierno Vasco se realizará al Ayuntamiento de San Sebastián durante el periodo 2016-2019, conforme a la siguiente distribución anual:

-Año 2016: 100.000 euros, a la firma del convenio, y una vez definida la ubicación del campo de hockey.

-Año 2017: 3.300.000 euros, una vez ejecutado el 33% de la obra y tras la remisión de las certificaciones que acrediten dicha cuantía.

-Año 2018: 3.300.000 euros, una vez ejecutado el 66% de la obra y tras la remisión de las certificaciones que acrediten dicha cantidad.

-Año 2019: 3.300.000 euros, una vez acreditado el “fin de obra”.